




Turlach taldea eta Cormac Breatnach, Irlandako flautista famatua, Kixkal tabernan (2007).

Turlach:

irlandar musikako saioak
Hernaniko kaxkoan

■ Ramon Iriarte

Azken urteotan, irlandar musika entzuteko aukera bikaina izan dugu Hernaniko kaxkoan *Turlach* taldekoei esker. Hain zuzen ere, hilean behin, urritik ekainera edo, hileko ostegun gauetako batean jardun ohi dute *Kixkal* tabernan saio ederrak ematen. Batzuetan, beraiek bakarrik; beste zenbaitetan, beste lagun musikari batzuekin, eta beti-beti, nola ez, garagardoaren konpainian, liturgia orok baititu bere erritu eta edabe magikoak. Artikulutxo honetan, Turlach taldea eta irlandar musikako saioak izango ditugu idazgai. Goazen, bada.



Turlach: Alan Griffin, Juanjo Otxandorena eta Arkaitz Miner.

Taldeak eta taldearen historia.

Turlach Juanjo Otxandorena hernaniarrak (bouzoukia), Arkaitz Miner erreteriarak (biolina eta mandolina) eta Alan Griffin irlandarrak (txirulak, gaitak, alboka, etab.) osatzen dute.

Aurretik, Juanjo eta Alan arituak ziren saioak egiten Donal Thomson gitarra-jole eta abeslaria-rekin, baina bizitzaren gorabeherak medio, Donal Madrilera joan zen eta ezin izan zuten elkarrekin talde gisa jarraitu. Baina hor agertu zen Arkaitz: Irlandako musikarekiko zaletasunak harrapatuta, Alan Griffinen berri izan zuen, eta asko pentsatu gabe jarri zen harekin harremanetan, irlandar doinu tradizionalak ikasteko gogo biziz.

Musikari bikainak dira Juanjo, Arkaitz eta Alan, musikan ibilbide luze eta oparoa egiten ari direnak, eta elkarrekin jotzeko erreperitorio zabala osatu dute urte hauetan. Talde informala izateko asmoz sortu zuten, hirurak jada sartuta baitzeuden beste abentura batzuetan (Arkaitzek, esaterako, Tapia eta Leturia, Ruper Ordorika, eta beste zenbait musikarirekin kolaboratu ohi du; Juanjok, Alboka, Oreka TX, Aintzina eta abarrek, eta Alanek, berriz, Alboka eta Aintzinarekin, besteak beste).

Irlandako doinu eta abesti tradizionalak eta Eskoziako eta Ingalaterrako abesti zahar batzuek gain, molde zaharreko konposizio berriak ere jotzen dituzte. Zoragarria da, esaterako, Micho Russellek sortutako *reel* bakarra nola jotzen duten entzutea, baina, era berean, dantzazaleak mugia-

razi egiten dituzte fandangoen soinuez eta kemen handiz ekiten diete albokako doinu tradizionalei, euskal erreperitorio tradizionala ere menderatzen baitute; izan ere, euskal balada zaharrak berreskuratze sortu zuten *Aintzina* taldea, Zigor Sagar-narekin batera: *Suitian* izeneko diskoa kaleratu zuten 2009an eta beste disko bat kaleratzekotan dabiltza 2011ko amaiera alderako.

Izenaren nondik norakoak.

Taldea sortuta, izena jarri behar, eta hori egiterakoan *Turlach Ó Cearrbhalláin* i XVII.-XVIII. mendeko harpalari itsu ospetsuaren izena erabiltzea bururatu zitzaion, nahiz eta beraiek harpa ez jo (harizko instrumentua, noski, bestela badakite-eta harpa ederki jotzen). Harpa ez jotzearen hutsunea betetzeko edo, ohartu ziren *Turlach* izeneko laku bitxi batzuk daudela Irlandan, euria botatzean hutsik egotetik ziztu batean bete daitezkeenak: orain hutsik, orain beteta.

Gainera, ezaugarri hori taldearen izaerarekin bat zetorrela iruditu zitzaion, ez baitzuten konpromiso finkoko talderik sortu nahi, baizik eta ahal zutenean elkarrekin jo, besterik gabe. Beraz, laburrean, esan dezakegu ura eta Irlandako musikari mitikoenetako bat direla taldearen izenaren erreferenteak; musika eta ura, bizitzeko behar-beharrezko elementuak bata zein bestea. Izen egokia, guztiz, urak bezala musikak ere badaki-eta bere bidea aurkitzen, beste elementu batzuekin nahasten, garai berrietara egokitzen eta beti aurrera egiten, etengabe.



Irlandar musikako saioak (sessions).

Emanaldi bereziak ditugu irlandar musikako saioak. Ez dira kontzertuak, ezta inprobisazioak ere, nahiz eta hasi aurretik musikariek zer eta zer ordenatan jo zehazten ez duten. Idatzi gabeko zenbait arau daudela esan daiteke, baina horrelako saioak hainbat eta hainbat lekutan egiten direnez, ez zaie beti zorrotz-zorrotz eusten arau horiei. Zer dela-eta dira bitxiak saioak? Lehenik eta behin, irlandar doinu tradizionalak jotzen dira, noski: *reel*-ak, batez ere, eta *double-jig*-ak (6/8ko gigak), *hornpipe*-ak, polka bat edo beste, *slip-jig*-ak (9/8ko gigak) edo *slide*-ak (12/8ko gigak). Baltzak, mazurkak eta Irlandan jo ohi diren beste doinu geldo batzuk ere onartzen dira, hein batean (pare bat edo saio bakoitzean; hortik gora, nekez). Instrumentu melodikoa jotzen dutenek berdoinuan jo behar dute; hau da, melodia eta kito, erruki gabe: ez bigarren ahotsik, ezta kontrakanturik ere. Instrumentu harmonikoa jotzekotan, berriz, gehiegi nabarmendu gabe egin behar da, eta melodiaren gorabeherak ondo-ondo jakinda. Eta doinua ez dakienari entzun eta hurrengorako ikastea dagokio (tira, garagardoak ateratzeko edo komunera joateko ere aprobetxa dezake une hori). Saioetan erabili ohi den instrumentu-gama nahiko mugatua da. Instrumentu melodiko hauek izaten dira ohikoenak: *uilleann pipe*-a (Irlandako gaita), egurrezko zeharkako txirula, *tin whistle*-a, biolina, akordeoia, kontzertina, harpa, mandolina eta banjoa. Instrumentu horiek erabilita eroso jo daiteke

tonalitate beretan (re, sol eta la tonuetan) eta ez diote elkarri traba egiten bolumenari dagokionez. Hain zuzen ere, instrumentu batek biolina entzutea eragozten badu, ez da saioetan erabiltzeko egokia.

Saioetan parte hartzen duten musikariek nola-baiteko oinarritzko errepertorioa dute, 150 bat doinuz osatua, eta abesti horiek ikasteak ematen die musikariei saioetan nonahi eta nonahiko musikariek aritzeko aukera, baita aurretik elkar ezagutzen ez badira ere. Eta noski, zenbat eta doinu gehiago jakin, orduan eta gehiagotan parte hartzeko aukera izango da. Saioetan, doinu horiekin tandak (*set*) osatzen dituzte, bi, hiru, lau... doinu bata bestearen atzetik jota. Baina, nork erabakitzen du zer eta noiz jo? Bada, musikarietako bat da (oraingoan zu, hurrengoan ni), nolabait esateko, doinutandaren gidaria: berak hasi eta erabakitzen du zer abestiz osatuko duen tanda, doinu batetik bestera noiz aldatu, bai eta noiz amaitu behar den ere, eta gainerakoek jarraitu egiten diote. Hori bai, tanda osatzen duten doinuek neurri berekoak izan behar dute; ezin dira neurriak nahasi *set* berean. Eta ohar bat: besteek doinu jakin bat ez dakitela ziur egonez gero, ez da jo behar, saioen helburua denek elkarrekin jotzea baita. Tanden artean, solasalditxo laburrak egiten dituzte; sarritan, jotako doinuen inguruan: doinuren bat norena den, non ikasi zuten, nori entzun zioten lehen aldiz... Eta horrela jarduten dute zenbait orduz, taberna, saioen ingurune naturala, ixteko ordua iritsi arte. Gero, elkar agurtu eta hurrengo saiora arte.



Turlach taldea Irlandan, Moherreko itsas labarren inguruan.

Irlandara joan zirenekoa.

2007ko urtearen hasieran, Gabonetako oporrak aprobetxatuz, Irlandara joan ziren *Turlach*-eko kideak; hain zuzen ere, *Clare* konderrira. Eskualde hori Irlandako musika tradizionalaren “bihotza” dela esan daiteke, eta musikari bikain asko atera dira handik (Kilfenora Ceili Band, Tulla Ceili Band, Stockton's Wing, Sharon Shannon, Noel Hill, Martin Hayes, Peadar O'Loughlin, Micho Russell,...). Alan bertakoa denez (*Ennis* hirian jaiotakoa, hain zuzen, Mohammad Aliren birraitona irlandarraren herri berekoa, harrapazak!), primerako gidaria izan zuten euskaldunek hango parajeak ikusteko. Turismo apur bat egiteaz gain, aukera izan zuten zenbait saio ikusteko, bai eta horietako batzuetan parte hartzeko ere. Egunez, bertako leku aipagarrienak ikusi zituzten (Moherreko itsas labarrak, Poul nabroneko trikuharria, Galway hiria, Burren eskualdeko paisaia berezi eta ederra, Connemarako paraje zoragarriak... eta, nola ez, Carraneko *turlach*-a, Irlandako handiena).

Gauetz, berriz, hango musika-giroan murgiltzen jardun zuten, ia gauero. Zenbait saio ikusi zituzten Ennisen, eta beste bat Lisdoonvarnan. Azken horretan, hain zuzen, Davy Spillane ospetsuak jardun zuen, Roadside tabernan. Molde

zaharreko taberna bitxi hori 1865ean ireki zuten, eta musikari ospetsu eta bikain asko eta asko aritu dira bertako saioetan. Gaur egun ere, uda partean, egunero izaten da musika zuzenean ikusteko aukera. Hango musikariak ikusi ez ezik, beraiek ere parte hartu zuten saio pare batean. Hain zuzen ere, Lisdoonvarnan (Roadside tabernan), Liscannor-en (Murphy's tabernan) eta Galway hirian (Ward's tabernan) jardun zuten, eta esan beharra dago ez zirela makal ibili: bertakoein hango doinuaz jotzeaz gain, hemengoak ere jo zituzten zenbaitetan, bertakoek hala eskatuta, eta benetan ikustekoa zen irlandarren harridura albokaren soinua entzutean.

Kixkaleko saioak.

Azken urteotan, *Turlach*-eko lagunak *Kixkal* tabernan aritu dira hilean behin, ostegun gau batean; Kixkaleko “etxeko taldetzat” (*house band*) ere har dezakegu *Turlach*. Eta beraiez gain, beste musikari askok jardun dute saio horietan, musikari lagun asko baitituzte taldekoek. Besteak beste, Seighean O Draoi (*bodhran*-a), Fiachra Mac Gabhann (bouzokia; Albokako diskoetan jotzen du), Mossie Martin biolin-jole aparta, Cormac Breatnach (*whistle*), Iaian MacLeod, Joseba



Arkaitz, Alan eta Juanjo Lisdoonvarnako Roadside tabernan.

Tapia, Iñaki Eguren eta "Hernani" Musika eskolako lagunak, Gari Otamendi (biolina), Patrice Lemaire (biolina), Jean Graham (*hammer dulcimer*) eta Yves haren senarra (biolina), eta Mike Murphy (kontzertina) aritu dira, leku askotakoak: irlandarrak, eskoziarrak, ingelesak, amerikarrak, frantziarrak, bretoiak, euskaldunak..., Hernaniko saioak nolabaiteko oihartzuna izan dute-eta, eta gainera, saio irekiak dira: norbaitek parte hartu (*sit in*) nahi izanez gero, bere burua aurkeztu eta baimena eskatu baino ez du egin behar.

Eta nolatan, bada, irlandar musikako saioak Hernanin egitearena? Oso sinplea. Alan Griffin irlandar euskaldunduak, hemengo musika bereganatzeaz gain, beti eutsi izan dio hango musika tradizionala jotzeko ohiturari, eta sortzen zaizkion aukera guztiak aprobetxatzen ditu. Gainera, saio horietan jarduten dutenek nolabaiteko "sare soziala" osatzen dutela esan daiteke, elkar eza gutzen dute eta sarritan aritzen dira elkarrekin musika jotzen, oraingoan nire "etxean", hurrengoan "zurean", eta horrelako leku finkoen bila jarduten dute elkartzeko aukera izateko. Hernanin, Kixkalekoa sare horretako beste gune bat suertatu da, *Turlach*-eko lagunei aldian-aldian jotzeko aukera eman diena, etxetik gertu, eta hernaniarron mesederako.

Giro alai, polita eta berezia sortzen da gau horietan. Ostegun "soziala" aitzaki, aukera ona da afal ostea apur bat luzatzeko eta asteburuari ongietorria ematen hasteko. Eta, egia esan, jende asko inguratzen da bertara, soinuak erakarrita, musikak nolabait uxatzen baitu hurrengo goizean goiz jaiki beharraren presak: *Carpe diem* eta *Sláinte* jaun-andreok, goza dezagun musikaz, eta biharamunekoak, biharamunerako.